ALHAO ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN **ALDIZKARI OFIZIALA**

2026ko irailaren 16a, asteazkena • 106 zk.

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Organismo Autonomoak

GAZTERIAREN FORU ERAKUNDEA

Arabako irakaskuntza ertainetako ikastetxeetan diharduten Informatzaile gazteei laguntzeko deialdia 2026-2027

Foru Gobernuaren Kontseiluaren abenduaren 28ko 57/2021 Foru Dekretua dela bide, Gazteriaren Foru Erakundearen dirulaguntzak norgehiagoka bidez eta lehia askean emateko oinarri orokorrak onartu ziren.

Arabako irakaskuntza ertaineko ikastetxeetako gazte informatzaileentzako laguntzaren 2026-2027 deialdi hau, Gazteriaren Foru Erakundearen Administrazio Kontseiluak 2026ko irailaren 7an onartua izan dena, aipatutako oinarri orokorretan eta hurrengo apartatuetan ezarritakoaren araberakoa izango da.

1. Deialdiaren xedea

Honako deialdi honetan, Arabako Lurralde Historikoko bigarren hezkuntzako ikastetxeetan, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako (laugarren mailako ikasleak) ikastetxeetan, batxilergoan, oinarrizko lanbide heziketan, erdi mailako lanbide heziketan eta goi mailako lanbide heziketan ikasten duten informatzaile gazteen sarea kudeatu eta dinamizatzeko zuzkidura ekonomikoa ematea arautu du. Vitoria-Gasteizko udalerrikoak ez diren lurraldeko ikastetxeetarako laguntza da; horiek guztiek baliatzea dute dagoeneko udalaren berariazko deialdi bat 2026-2027 ikasturtean.

Deialdiaren helburua da gazteei garapen pertsonalerako informazio esanguratsua eskuratzen laguntzea eta, batez ere, berdinen artean informazio hori jaso, antolatu eta zabaltzeko eragile bihurtzea.

Era berean, deialdiaren bidez, parte hartzen duten gazteek komunikazioa, partaidetza eta pertsonen arteko harremanak lantzeko tresna pertsonalak gara ditzaten lortu nahi da, eta, gainera, gazteon garapen pertsonalean bidelagun izatea.

Gazteriaren Foru Erakundeak finkatuta dituen ildo estrategikoen artean, badago Arabako gazteen garapen pertsonalari eta sozialari lotutakorik; horrela, proiektu hori bat dator Arabako landa-eremuko gazteen emantzipazioa eta partaidetza sustatzeko "Lurrikara" programak eta gazteentzako informazioa zabaltzeko Infogaztea zerbitzuak garatzen dituzten helburuekin. Ildo horretan, bada, bi zerbitzu horiek eta deialdi honetan eskainitako laguntzek gazteen aitzindaritza eta parte-hartzea ahalbidetuko dute hartzaile diren politiketan eta, hortaz, haien garapenean.

2. Onuradunak

Arabako eta Trebiñuko barrendegiko ikastetxeetako ikasle gazteak, 15 eta 25 urte artekoak, derrigorrezko bigarren hezkuntzakoak (laugarren mailako ikasleak), oinarrizko lanbide heziketakoak, batxilergokoak eta erdi eta goi mailako lanbide heziketakoak, -Vitoria-Gasteizko udalerriko ikastetxeetan ari diren ikasleak izan ezik-. Ikastetxeek laguntzak kudeatu eta izendatuko behar dituzte proiektuan parte hartuko duten gazteei.

3. Proiektua

Proiektuaren helburua da irakaskuntza ertainetako ikasle gazteek, matrikulatuta daudeneko ikastetxeetan, informazioa eskuratzeko, antolatzeko eta zabaltzeko ekintzan duten parte hartzea koordinatzea. Horretarako, berebiziko garrantzia emango zaie gazteentzako informazioari eta gazteen ingurune hurbilean egiten diren gazteentzako informazio proposamenei.

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

Informatzaile gazteak ditugu Arabako irakaskuntza ertainetako ikastetxeetan dabiltzan 15-25 urteko ikasleak, Vitoria-Gasteizko udalerrikoak izan ezik. Lana behar bezala gauzatzeko, egokiena da ikastetxe bakoitzeko bi gaztek parte har dezaten.

Programa 2026eko azarotik 2027ko maiatzera arte egongo da indarrean.

3.1. Aurreikusitako lan ildoak:

3.1.1. Ikastetxean, informazio gune fisikoa eta/edo birtuala kudeatzea.

— Informazio euskarri fisikoa, iragarki ohola edo kortxoa erabiliz, ikastetxean ikusteko moduko gune batean jarrita, non informatzaileek informazioa zabalduko duten.

— Informazio euskarri birtuala, ikastetxearen webgunearen edo blogaren barruan, non gazteek informazioa zabalduko duten.

Gazteriaren Foru Erakundeak, Arabako Gazte Informazio eta Dokumentazioko Lurralde Zentroaren (Infogaztea) bitartez, hamabostean behin, informatzaile gazteek beste iturri batzuk erabiliz, besteak beste, ikastetxea bera, udalaren webguneak, kuadrillaren webguneak… biltzen duten informazioa osatzeko material hautatua landuko du.

3.1.2. Hilean bi bideo sortzea Gazteriaren Foru Erakundearen Infogaztearen sare sozialetan zabaltzeko. Bideo horietako gaia adostuko du Gazteriaren Foru Erakundeak programaren arduradunarekin, eta informazio edukien eta ikastetxeko informatzaileen edo ikasleen kezka pertsonalen ingurukoa izango da.

4. Konpromisoak eta betebeharrak

4.1. Ikastetxeek:

— Deialdia ikasleen artean zabaltzea eta informatzaile gazteak izateko hautagaiak aukeratzea. Horiek ikastetxean mantendu beharko dira ikasturte osoan zehar. Ikastetxean baja ematen bazaie, edo deialdi honetan aurreikusitako lana egin ezin badute, ikastetxeak beste gazte bat hautatu beharko du, eta Gazteriaren Foru Erakundeari jakinarazi.

— Ikastetxeko arduraduna izendatzea, programa gara dezan.

— Eskabidea aurkeztea.

— Gazteriaren Foru Erakundeak emandako zuzkidura ekonomikoa kudeatzea eta informatzaile gazteei eskuetaratzea, eta, geroago, eskatutako justifikazioa aurkeztea.

— Programa kudeatzeko beharrezkoak diren zereginetan, ikastetxeko baliabideak (ordenagailuak, bulegoko materiala, fotokopiak, inprimaketa...) erabiltzeko baimena ematea.

— Proiektuak ezarritako epean jarraituko duela ziurtatzea.

— Informatzaile gazteek egindako proiektuaren kudeaketa-memoria aurkeztea.

4.2. Informatzaile gazteek:

— Informazio-gunea kudeatzea, informazioa antolatuz eta ordenatuz, Gazteriaren Foru Erakundearekin adostutako jarraibideen arabera, eta haren erabilera ikastetxeko gainerako ikaskideen artean sustatzea eta zabaltzea.

— Edukia bideo laburraren formatuan sortzea, hilean bitan, Gazteriaren Foru Erakundearen Infogaztearen sare sozialetan argitaratzeko.

— Hasierako prestakuntza saioetan eta gerta daitezkeen beste bilera batzuetan parte hartzea.

— Programaren azken ebaluazioan parte hartzea.

— Kudeaketa memoria prestatzea.

— Telefono mugikorra edukitzea.

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

4.3. Gazteriaren Foru Erakundeak:

— Ikastetxeko eta informatzaileen arteko nahiz ikastetxeko eta Gazteriaren Foru Erakundeko arduradunaren arteko koordinatzailea izendatzea.

— Hamabost egunean behin, informazio gunea kudeatzeko informazio materiala bidaltzea ikastetxera.

— Informatzaileei hasierako prestakuntza ematea (programa, informazioaren antolaketa eta bideoen sorkuntza).

— Informatzaileei programa osoan laguntzea.

— Informazio guneetan sortutako eta zabaldutako edukien eta sortzen diren bideoen jarraipena egitea.

— Informatzaile gazteek sortutako bideoak sare sozialetan zabaltzea.

— Ikastetxeei ordainketak egitea deialdian adierazitako baldintzetan.

5. Parte hartzeko eskabidea

5.1. Deialdian parte hartu nahi duten derrigorrezko bigarren hezkuntzako (laugarren mailako ikasleak), oinarrizko lanbide heziketako, batxilergoko eta erdi eta goi mailako lanbide heziketako ikastetxeek, Vitoria-Gasteizko udalerrian dauden ikastetxeek izan ezik, honako betebehar hauek izango dituzte:

a. 4.1 atalean azalduko konpromisoak hartzeko prest egotea.

b. Parte hartzeko eskabidea eta eskatutako dokumentazioa betetzea eta aurkeztea.

5.2. Eskabideak aurkeztea.

Eskaerak aurkezteko epea deialdi hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik 2026ko urriaren 31ra arte, biak barne, izango da.

Eskabideak honako hauek erabiliz aurkez daitezke:

a) Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoa, modu telematikoan hasitako izapide espezifikoa dela medio: https//egoitza.araba.eus/eu/hasiera.

Horretarako, eskabidea egiten duten ikastetxeek ziurtagiri elektronikoa eduki behar dute aldez aurretik, identifikatu ahal izateko. Informazio hori eskuragarri dago esteka honetan: https://egoitza.araba.eus/eu/nola-sartu.

b) Era berean, honako erregistro hauetan ere aurkeztu ahalko da eskabidea:

• Gazteriaren Foru Erakundearen erregistroa: norberak aurkeztuta edo behar bezala egiaztatutako ordezkariak aurkeztuta, Gazteriaren Foru Erakundeak Vitoria-Gasteizko Landazuri kaleko 3. zenbakian, beheko solairuan, daukan bulegoan.

• Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan jasotzen diren gainerako erregistroetako edozeinetan.

5.3. Eskabidearekin batera aurkeztutako agiriak.

Eskabidearekin batera, honako agiri berariazko hauek aurkeztu beharko dira:

a) Administrazio agiriak:

Parte hartzeko eskabide eredua (eskaera egoitzan aurkeztuz gero, ez da beharrezkoa agiria eranstea, egoitzan bertan betetzen baita dokumentu hori). I. eranskina.

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

b) Berariazko agiriak:

b.1. Informazio panel fisikoa eta/edo birtuala kudeatzeko proiektu laburra, informatzaile gazteek programari eta programa gauzatzeko moduari buruz egin beharrekoa; edukia modu askean egituratuz edo garatuz, edo jarraian aipatzen diren atalei jarraituz:

• Zergatik da garrantzitsua informatzaileen lana.

• Ikaskideentzat edo ingurukoentzat interesgarritzat jotzen dituzten gaiak.

• Proposatutako zeregina gauzatzeko informazioa non aurki dezaketen.

• Zer ekintza egingo dituzten ikaskideek ezagut ditzaten eta egingo duten lana haienganaino irits dadin.

• Gazteriaren Foru Erakundeari eta Infogazteari buruzko ezagutza.

Proiektu labur horrek ezin izango ditu 4 orrialde baino gehiago izan, eta PDF formatuan igo edo aurkeztuko da.

b.2. Gehienez ere 2 minutuko bideo eskematikoa, non ikastetxeko informatzaile gazteek beren buruari buruz, ikasten ari direnari buruz eta programan parte hartzeko dituzten zaletasunei eta motibazioei buruz hitz egingo duten. Bideo hori (egoitza elektronikora igoz gero) ezin izango da 10 MBtik gorakoa izan eta ezin du 30MBtik gorako transmisiorik ekarri; bestela, WeTransfer bidez ere bidali ahal izango da infogaztea@araba.eus helbidera.

b.3. Ikasleen eta/edo haien legezko tutoreen adostasuna (adingabeak badira) informatzaile gazteen deialdian parte hartzeko. II. Eranskina.

b.4. Sare sozialetan irudiak erabiltzeko eta bideoak argitaratzeko baimena. III eranskina.

Dirulaguntzaren eskaera behar bezala formalizatuta ez badago, daturen bat falta bada edo eskatutako dokumenturen bat aurkezten ez bada, akatsa zuzentzeko eskatuko zaio eskabidea egin duen ikastetxeari, eta, hori egin ezean, eskabidea beste izapiderik gabe artxibatuko dela adieraziko zaio.

Eskatutako dokumentazioa aurkezten ez duten edo akatsak 10 egun balioduneko gehieneko epe luzaezinean zuzentzen ez dituzten ikastetxeek atzera egin dutela ulertuko da.

Ikasleek eranskinak betetzeko programari edo laguntzari buruz argibiderik behar izanez gero, Infogaztea zerbitzuak aholkuak eta laguntza emango dizkie 945 181700 telefonora edo 670 281700 mugikorrera deituz (WhatsApp edo deia) edo infogaztea@araba.eus helbidera idatziz.

6. Aurrekontu erabilgarria eta dirulaguntzaren zenbatekoa

Deialdi honen babesean emango diren laguntzak 4.500,00 eurokoak dira. Horietatik 2.250,00 euro Gazteriaren Foru Erakundearen aurrekontuko 71100. G/232751/48000754 partidako 2026ko ordainketa kredituari dagozkio, eta 2.250,00 euro, berriz, 2027ko konpromiso kredituari.

Diruz lagundutako gehieneko zenbatekoa 500,00 euroko koa izango da hautatutako ikastetxe bakoitzeko, ikasleentzako kontraprestazio gisa, informazio gunea dinamizatzen egiten duten lanagatik eta Gazteriaren Foru Erakundearen sare sozialetan hilean-hilean zabaltzeko 2 bideo labur sortzeagatik.

Gehienez ere, 9 zuzkidura ekonomiko emango dira.

7. Laguntza emateko eta baloratzeko prozedura

Emakida-prozedura norgehiagoka izango da: aurkeztutako eskabideak alderatu egingo dira, haien arteko lehentasun hurrenkera ezartzeko, jarraian adierazitako balorazio-irizpideen arabera. Baloraziorik onena lortzen dutenei esleituko zaie dirulaguntza, deialdiaren aurrekontuko kreditua agortu arte.

Informatzaile gazteak izan nahi duten hautagaiek, ikastetxearen laguntzaz, kudeaketa proiektu laburra egin beharko dute, eta aurkezpen bideoa grabatu.

Gazteriaren Foru Erakundeak proposamenak baloratuko ditu, irizpide hauen arabera:

AURKEZTUTAKO PROPOSAMENAK BALORATZEKO ALDERDIAK	PUNTUAK
Kudeaketa proiektuak ingurunean (ikastetxean, eskualdean, herrian...) duen gizarte eragina	Gehienez, 10 puntu
Informazioa kudeatzeko proiektua	Gehienez, 25 puntu
Ikastetxeak hautatutako informatzaile gazteak aurkezteko bideoa	Gehienez, 15 puntu

Balorazio batzorde batek aztertuko ditu eskabideak, Gazteriaren Foru Erakundeko zuzendari-kudeatzailea buru dela. Beste alde batetik, gazteria arloko eta/edo dokumentu kudeaketako bi teknikari eta Zerbitzu Orokorretako teknikaria, gutxienez, batzordekide izango dira. Idazkaritza Teknikoko burua izango da idazkaria, eta hitza izango du, baina botorik ez.

Oinarri arautzaileetan ezarritako balorazio batzordeak, deialdian finkatutako irizpideen arabera eta batzorde teknikoaren aurretiazko txostena ikusita, laguntza emateko edo ukatzeko txostena helaraziko diote Gazteriaren Foru Erakundeko zuzendari-kudeatzaileari, aurkezteko epea amaitu eta, gehienez ere, hamabost eguneko epean, ebazpena eman dezan.

Zuzkidura ekonomikoen kopurua baino eskaera gehiago egonez gero, ikastetxeak lehen adierazitako irizpideen arabera hautatuko dira, puntuazio handienetik txikienera. Gainerako eskabideak itxarote zerrenda batean geratuko lirateke (ateratako puntuen arabera antolatuta), eta zerrenda horretara joko litzateke aurrekonturik badago edo ikastetxeren batek uko egiten badio.

8. Dirulaguntza ordaintzea

Laguntza ehuneko 50eko bi zatitan ordainduko da, bata 2026ko abenduan eta bestea 2027ko maiatzean.

Ikastetxeak eskuetaratuko die laguntza informatzaile gazteei, eta azkenek ez dute inolako lan harremanik edo merkataritza harremanik izango Gazteriaren Foru Erakundearekin.

Gazteriaren Foru Erakundeak ordainketak izapidetu ditzan, ikastetxeak abenduaren hasieran eta maiatzaren hasieran egiaztagiri bat bidali beharko du, informatzaileek ikastetxean informazioa dinamizatzeko lana egin dutela egiaztatzeko.

Egiaztagiri hori aurkezten ez bada edo justifikazio horretatik ondorioztatzen bada ez direla gauzatu, aurreikusitako moduan, ikastetxeak eta/edo informatzaileek beren gain hartutako konpromisoak eta betebeharrak, dagokion ordainketa baliogabetzeko ebazpena emango da.

Ikastetxeak ezin izango du, inola ere, zuzkidura ekonomikoa atxiki deialdi honetako arrazoiez bestelakoengatik.

9. Dirulaguntza justifikatzea

Gehienez ere, 2027ko ekainaren 11ra arte (egun hori barne), laguntza jaso duten ikastetxeek informatzaile gaztearen zereginen amaierako memoria aurkeztu beharko dute egoitza elektronikoa edo haiek aukeratzen duten erregistro bitartekoa erabiliz, egin duten kudeaketa zerbitzuaren inguruko ebaluazio laburra eginda. Horrez gain, informatzaile gazteari zeregina betetzeko eman dioten diruaren justifikazioa ere aurkeztuko dute.

10. Dirulaguntzen bateraezintasuna

Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzei buruzko urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauaren 18. artikuluak ezarritakoaren arabera, dirulaguntzen zenbatekoa ezingo da izan, inola ere, bakarka hartuta edo beste dirulaguntza, laguntza, diru sarrera edo baliabide batzuekin batera, diruz lagundutako jardueraren kostua baino handiagoa.

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

Dirulaguntza emateko kontuan hartutako baldintzak aldatuz gero, edo diruz lagundutako jardueraren kostua gainditzen duten beste ekarpen batzuk lortuz gero, dirulaguntza emateko ebazpena aldatu ahalko da.

11. Publizitatea

Honako deialdi hau ALHAOn argitaratuko da.

Vitoria-Gasteiz, 2026ko irailaren 7a

Gazteriaren Foru Erakundearen zuzendari-kudeatzailea
JUAN JOSE ROJO BAZÁN

gaztea
Gazteriaren Foru Erakundea
Instituto Foral de la Juventud
araba álava

Arabako Irakaskuntza Ertainetako ikastetxeetan diharduten Informatzaile gazteei laguntzeko deialdia 2026-2027

Convocatoria de apoyo a jóvenes informadores/as en centros educativos alaveses de Enseñanzas Medias 2026-2027

I ERANSKINA: PROGRAMAN PARTE HARTZEKO ESKABIDEA
ANEXO I: SOLICITUD DE PARTICIPACIÓN EN EL PROGRAMA

LAGUNTZA EKONOMIKOAREN ESKABIDEA
Programa: Arabako Irakaskuntza Ertainetako ikastetxeetan diharduten informatzaile gazteak (Gazteriaren Foru Erakundea).
Dirulaguntza ildoa: "Informatzaile gazteentzako laguntza".
Laguntzaren zenbatekoa: 500 euro.

SOLICITUD DE AYUDA ECONÓMICA
Programa: Jóvenes Informadores/as en centros educativos alaveses de Enseñanzas Medias, del Instituto Foral de la Juventud.
Línea de subvención: "Apoyo a jóvenes informadores/as".
Importe de la ayuda: 500 euros.

IKASTETXEAREN DATUAK ■ DATOS DEL CENTRO

Ikastetxearen izena ■ Nombre del centro:

IFK ■ **NIF**

Helbidea (kalea) ■ Domicilio (calle) | **Zk.** ■ Núm. | **Letra** | **Eskra.** ■ Escal. | **Solairua** ■ Piso | **Aldea** ■ Mano

Udalerria ■ Municipio

Herria ■ Localidad

P.K. ■ C.P. | **Telefonoa** ■ Telefóno | **Posta elektronikoa** ■ Correo electrónico

Banku erakundea ■ Entidad bancaria

IBAN zenbakia ■ Número IBAN

LEGEZKO ORDEZKARIAREN DATUAK ■ DATOS DEL REPRESENTANTE

Izen-abizenak ■ Nombre y apellidos

IFK/NAN ■ **NIF/DNI**

Telefonoa ■ Telefóno | **Posta elektronikoa** ■ Correo electrónico

RE 26/147

1/3

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

Arabako Irakaskuntza Ertainetako ikastetxeetan diharduten Informatzaile gazteei laguntzeko deialdia 2026-2027
Convocatoria de apoyo a jóvenes informadores/as en centros educativos alaveses de Enseñanzas Medias 2026-2027

I Eranskina ■ Anexo I

PROGRAMAREN ARDURADUNAREN DATUAK
DATOS DE LA PERSONA RESPONSABLE DEL PROGRAMA

Izen-abizenak ■ Nombre y apellidos

Ikastetxeko kargua ■ Cargo en el centro

Posta elektronikoa ■ Correo electrónico

Telefonoa ■ Teléfono

HAUTATUTAKO INFORMATZAILE GAZTEEN DATUAK
DATOS DE LAS PERSONAS INFORMADORAS JÓVENES SELECCIONADAS

1. PARTE HARTZAILEA ■ PARTICIPANTE 1

Izen-abizenak ■ Nombre y apellidos

IFK/NAN ■ **NIF/DNI**

Sexua ■ Sexo

Jaiotza data ■ Fecha de nacimiento

Helbidea ■ Dirección

Posta elektronikoa ■ Correo electrónico

Telefonoa ■ Teléfono

Matrikulaturik dagoeneko maila ■ Curso en el que está matriculado/a

2. PARTE HARTZAILEA ■ PARTICIPANTE 2

Izen-abizenak ■ Nombre y apellidos

IFK/NAN ■ **NIF/DNI**

Sexua ■ Sexo

Jaiotza data ■ Fecha de nacimiento

Helbidea ■ Dirección

Posta elektronikoa ■ Correo electrónico

Telefonoa ■ Teléfono

Matrikulaturik dagoeneko maila ■ Curso en el que está matriculado/a

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

Arabako Irakaskuntza Ertainetako ikastetxeetan diharduten Informatzaile gazteei laguntzeko deialdia 2026-2027
Convocatoria de apoyo a jóvenes informadores/as en centros educativos alaveses de Enseñanzas Medias 2026-2027

I Eranskina ■ Anexo I

IKASTETXEAK ■ EL CENTRO

Adierazten du Ikastetxeak xede dituen deialdi honetan ezarritako eginkizunak eta betekizunak ezagutzen ditudala eta haiekin bat datorrela. Programa garatzeko ezarri den epean, programaren iraupena bermatzeko konpromisoa hartzen dudala, bai eta ikastetxeak informatzaile gazteei zuzkidurak epearen barruan ordaintzeko ere.

☐ **Declara que** conoce y está de acuerdo con las funciones y requisitos establecidos en esta convocatoria para los centros educativos de enseñanzas medias de Álava. Se compromete a garantizar la continuidad del programa durante el periodo de tiempo estipulado para su desarrollo, así como a realizar el pago de las dotaciones a las/los informadores dentro de los plazos establecidos.

Eskatzen du:

Arabako Informatzaile Gazteen 2026-2027 programan parte hartzeko hautagaiek egin duten proposamena, eskabide honekin batera aurkeztu duguna, baloratzea eta onartzea, eta programan ezarritako diruzko zuzkidura ematea.

Solicita:

☐ Que se valore y acepte la propuesta de participación elaborada por los candidatos/as al programa de Jóvenes Informadores/as Alavesas 2026-2027 que presenta junto con esta solicitud y se les conceda la dotación económica estipulada.

.....

Legezko ordezkariaren sinadura ■ Firma del/la representante legal

.....

*(***Lekua eta data** ■ *Lugar y fecha)*

ERANTSITAKO AGIRIAK:

- Informatzaile gaztea izateko hautagaiek gauzatutako ekintza planaren proiektua.
- Aurkezpen bideoa.
- Informatzaile gazteen deialdian parte hartzeko adostasun agiria (II. eranskina).
- Irudiak erabiltzeko eta bideoak sare sozialetan argitaratzeko baimena (III. eranskina).

DOCUMENTACIÓN QUE SE ADJUNTA:

- Proyecto del plan de trabajo llevado a cabo por los/las candidatos/as a informador/a o informadores/as juveniles.
- Video de presentación.
- Conformidad para participar en la convocatoria de jóvenes informadores/as (Anexo II).
- Autorización para el uso de imágenes y publicación de videos en RRSS (Anexo III).

DATUAK BABESTEARI BURUZKO INFORMAZIOA

Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorrak eta Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoak xedatutakoaren arabera, zure datu pertsonalei ematen dizkiegun tratamenduei buruzko gai hauen berri ematen dizugu, eskatu duzun laguntza edo dirulaguntza kudeatzeko eta izapidetzeko xedez, esleituta ditugun eskumenen esparruan.

Jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak ez zaizkiela hirugarrenei jakinaraziko, eskatu duzun laguntza edo dirulaguntza kudeatzeko eta izapidetzeko edo legezko betebeharrak betetzeko beharrezkoa ez bada, behintzat.

Era berean, jakinarazten dizugu alderdi batzuk kudeatzeko hirugarrenen zerbitzuak erabiltzen ditugula, eta horiek tratamenduaren arduradun jarduten dutela; datuak tratatzeko kontratua sinatu dugu haiekin, DBEOren 28.3 artikuluak xedatutakoaren arabera.

Zure datu pertsonalak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko, tratamendua mugatzeko, aurka egiteko edo datuen eramangarritasuna bideratzeko idatziz eska dezakezu eskaera Gazteriaren Foru Erakundera bidalita (Joaquin Jose Landazuri kalea 3, behea, 01008 Gasteiz, Araba) edo mezu elektronikoa dpo.ifj@araba.eushelbidera bidalita. Zure nortasuna egiaztatzeko beharrezkoa izanez gero, zure NANaren kopia bat eskatuko dizugu.

Informazio gehiago:
https://gazteria.araba.eus/es/proteccion-de-datos
DBEOren onarpena

INFORMACIÓN SOBRE PROTECCIÓN DE DATOS

De acuerdo con lo dispuesto por el Reglamento General de Protección de Datos y por la Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de protección de datos personales y garantía de los derechos digitales, le informamos de las siguientes cuestiones relativas a los tratamientos que hacemos de sus datos personales para la finalidad de la gestión y tramitación de la ayuda o subvención que solicita en el ámbito de las competencias que tenemos atribuidas.

Le informamos de que sus datos personales no se comunicarán a terceros salvo que fuera necesario para la gestión y tramitación de la ayuda o subvención que solicita o bien para el cumplimiento de obligaciones legales.

Del mismo modo, le informamos de que para algunas cuestiones utilizamos servicios de terceros, que actúan como encargados del tratamiento, con quienes hemos firmado el correspondiente contrato de tratamiento de datos de acuerdo con lo dispuesto por el artículo 28.3 del RGPD.

Puede solicitar el acceso a sus datos personales, la rectificación, supresión, la limitación del tratamiento, oposición o la portabilidad de los mismos enviando una solicitud por escrito dirigida a Instituto Foral de la Juventud en calle Joaquín José Landázuri, nº 3 bajo, C.P. 01008 de Vitoria (Álava), o bien enviando un correo electrónico a dpo.ifj@araba.eus. Es posible que le solicitemos una copia de su DNI en caso de que fuera necesario para acreditar su identidad.

Para más información:
https://gazteria.araba.eus/es/proteccion-de-datos
Aceptación RGPD

3/3

gaztea
Gazteriaren Foru Erakundea
Instituto Foral de la Juventud
araba álava

Arabako Irakaskuntza Ertainetako ikastetxeetan diharduten Informatzaile gazteei laguntzeko deialdia 2026-2027

Convocatoria de apoyo a jóvenes informadores/as en centros educativos alaveses de Enseñanzas Medias 2026-2027

II ERANSKINA: INFORMATZAILE GAZTEEN DEIALDIAN PARTE HARTZEKO ADOSTASUN AGIRIA

ANEXO II: CONFORMIDAD PARA PARTICIPAR EN LA CONVOCATORIA DE JÓVENES INFORMADORES/AS

Informatzaile gazteen programan parte hartzea Gazteriaren Foru Erakundeak Infogaztea zerbitzuaren bitartez ematen duen informazioa eta informatzaileek berek aukeratutakoa ikastetxeko ikaskideen artean modu arduratsuan zabaltzean datza. Zabalkunde hori ikastetxeko informazio gune batean egingo da.
Gainera, parte-hartzaileek bi bideo labur grabatuko dituzte hilean (azaroa eta maiatza bitartean), eta horiek sare sozialetan eta/edo Gazteriaren Foru Erakundearen webgunean argitaratuko dira.

La participación en el programa de jóvenes informadores/as consiste en difundir entre los compañeros y compañeras del centro de modo responsable, la información que aporte el Instituto Foral de la Juventud a través de Infogaztea y la seleccionada por los propios informadores/as. Esta difusión se llevará a cabo en un espacio informativo en el centro escolar.
Además los/las participantes grabarán dos videos breves al mes (entre noviembre y mayo) que serán publicados en las redes sociales y/o en la página web del Instituto Foral de la Juventud.

ADOSTASUN AGIRIA ■ CONFORMIDAD

IKASLEAK ADINGABEAK IZANEZ ■ EN CASO DE MENORES DE EDAD

PARTE HARTZAILEA ■ PARTICIPANTE

NANa ■ DNI

Abizenak, izena ■ Apellidos, nombre

Telefonoa ■ Teléfono

Ikastetxea ■ Centro escolar

AITA, AMA EDO TUTOREA ■ PADRE, MADRE O TUTOR/A

NANa ■ DNI

Abizenak, izena ■ Apellidos, nombre

Telefonoa ■ Teléfono

RE 26/148

1/3

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

Arabako Irakaskuntza Ertainetako ikastetxeetan diharduten Informatzaile gazteei laguntzeko deialdia 2026-2027
Convocatoria de apoyo a jóvenes informadores/as en centros educativos alaveses de Enseñanzas Medias 2026-2027

II Eranskina ■ Anexo II

"Informatzaile gazteentzako laguntzak" izeneko programan parte hartzeko baldintzekin ados dagoela adierazi eta **parte hartzeko** eskatzen du.

☐ **Solicita participar** y está conforme con las condiciones de participación en el programa de "Apoyo a jóvenes informadores/as".

Baimena ematen dut nire semeak/alabak "Informatzaile Gazteen Sarea" programan parte har dezan.

☐ Doy mi **autorización** para que mi hijo/a participe en el programa "Red de Jóvenes Infomadores/as".

Halaber, **adierazten dut** prestazio nahikoak dituen telefono mugikorra badaukala, eta hilean bi bideo labur grabatu eta editatzeko erabiliko duela.

☐ **Declaro**, asimismo, que dispone de un teléfono móvil de prestaciones suficientes con el que grabar y editar dos vídeos breves al mes.

Nire alabak/semeak Informatzaile Gazteen Sareko informatzaile gazte gisa parte har dezala eskatzen dut, eta deialdi honetan ezarritako arauekin ados nagoela **adierazten dut**, ikastetxearekin edo Gazteriaren Foru Erakundearekin ustez izan daitezkeen lan harremanei buruzko edozein erreklamaziori uko eginez.

☐ **Solicito** que mi hija/hijo participe como joven informador/a de la Red de Jóvenes Informadores/as en el centro escolar, y declaro estar de acuerdo con las normas establecidas en esta convocatoria, renunciando a cualquier reclamación sobre supuestas relaciones laborales con el centro educativo o con el Instituto Foral de la Juventud.

.....

Sinadura (aita, ama edo tutorea) ■ Firma (padre, madre o tutor/a)

.....

*(***Lekua eta data** ■ *Lugar y fecha)*

IKASLEAK ADINEZ NAGUSIAK IZANEZ GERO ■ EN CASO DE ALUMNOS/ALUMNAS MAYORES DE EDAD:

PARTE HARTZAILEA ■ PARTICIPANTE

NANa ■ DNI

Abizenak, izena ■ Apellidos, nombre

Telefonoa ■ Teléfono

Ikastetxea ■ Centro escolar

"Informatzaile gazteentzako laguntzak" izeneko programan parte hartzeko baldintzekin ados dagoela adierazi eta **parte hartzeko eskatzen du**.

☐ **Solicita participar** y está conforme con las condiciones de participación en el programa de "Apoyo a jóvenes informadores/as"

Baimena ematen dut "Informatzaile Gazteen Sarea" programan parte har dezadan.

☐ Doy mi **autorización** para participar en el programa "Red de Jóvenes Infomadores/as".

Halaber, **adierazten dut** prestazio nahikoak dituen telefono mugikorra badaukadala, eta hilean bi bideo labur grabatu eta editatzeko erabiliko dudala.

☐ **Declaro**, asimismo, disponer de un teléfono móvil de prestaciones suficientes con el que grabar y editar dos videos breves al mes.

Nire ikastetxean, Informatzaile Gazteen Sareko informatzaile gazte gisa parte hartzeko **eskatzen dut**, eta deialdi honetan ezarritako arauekin ados nagoela adierazten dut, ikastetxearekin edo Gazteriaren Foru Erakundearekin ustez izan daitezkeen lan harremanei buruzko edozein erreklamaziori uko eginez.

☐ **Solicito** ser Joven Informador/a de la Red de Jóvenes Informadores/as en mi centro escolar, y declaro estar de acuerdo con las normas establecidas en esta convocatoria, renunciando a cualquier reclamación sobre supuestas relaciones laborales con mi centro educativo o con el Instituto Foral de la Juventud.

.....

Sinadura ■ Firma

.....

*(***Lekua eta data** ■ *Lugar y fecha)*

2/3

Arabako Irakaskuntza Ertainetako ikastetxeetan diharduten Informatzaile gazteei laguntzeko deialdia 2026-2027
Convocatoria de apoyo a jóvenes informadores/as en centros educativos alaveses de Enseñanzas Medias 2026-2027

II Eranskina ■ Anexo II

DATUAK BABESTEARI BURUZKO INFORMAZIOA

Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorrak eta Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoak xedatutakoaren arabera, zure datu pertsonalei ematen dizkiegun tratamenduei buruzko gai hauen berri ematen dizugu, eskatu duzun laguntza edo dirulaguntza kudeatzeko eta izapidetzeko xedez, esleituta ditugun eskumenen esparruan.

Jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak ez zaizkiela hirugarrenei jakinaraziko, eskatu duzun laguntza edo dirulaguntza kudeatzeko eta izapidetzeko edo legezko betebeharrak betetzeko beharrezkoa ez bada, behintzat.

Era berean, jakinarazten dizugu alderdi batzuk kudeatzeko hirugarrenen zerbitzuak erabiltzen ditugula, eta horiek tratamenduaren arduradun jarduten dutela; datuak tratatzeko kontratua sinatu dugu haiekin, DBEOren 28.3 artikuluak xedatutakoaren arabera.

Zure datu pertsonalak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko, tratamendua mugatzeko, aurka egiteko edo datuen eramangarritasuna bideratzeko idatziz eska dezakezu eskaera Gazteriaren Foru Erakundera bidalita (Joaquin Jose Landazuri kalea 3, behea, 01008 Gasteiz, Araba) edo mezu elektronikoa dpo.ifj@araba.eushelbidera bidalita. Zure nortasuna egiaztatzeko beharrezkoa izanez gero, zure NANaren kopia bat eskatuko dizugu.

Informazio gehiago:
https://gazteria.araba.eus/es/proteccion-de-datos
DBEOren onarpena

INFORMACIÓN SOBRE PROTECCIÓN DE DATOS

De acuerdo con lo dispuesto por el Reglamento General de Protección de Datos y por la Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de protección de datos personales y garantía de los derechos digitales, le informamos de las siguientes cuestiones relativas a los tratamientos que hacemos de sus datos personales para la finalidad de la gestión y tramitación de la ayuda o subvención que solicita en el ámbito de las competencias que tenemos atribuidas.

Le informamos de que sus datos personales no se comunicarán a terceros salvo que fuera necesario para la gestión y tramitación de la ayuda o subvención que solicita o bien para el cumplimiento de obligaciones legales.

Del mismo modo, le informamos de que para algunas cuestiones utilizamos servicios de terceros, que actúan como encargados del tratamiento, con quienes hemos firmado el correspondiente contrato de tratamiento de datos de acuerdo con lo dispuesto por el artículo 28.3 del RGPD.

Puede solicitar el acceso a sus datos personales, la rectificación, supresión, la limitación del tratamiento, oposición o la portabilidad de los mismos enviando una solicitud por escrito dirigida a Instituto Foral de la Juventud en calle Joaquín José Landázuri, nº 3 bajo, C.P. 01008 de Vitoria (Álava), o bien enviando un correo electrónico a dpo.ifj@araba.eus. Es posible que le solicitemos una copia de su DNI en caso de que fuera necesario para acreditar su identidad.

Para más información:
https://gazteria.araba.eus/es/proteccion-de-datos
Aceptación RGPD

3/3

gaztea
Gazteriaren Foru Erakundea
Instituto Foral de la Juventud
araba álava

Arabako Irakaskuntza Ertainetako ikastetxeetan diharduten Informatzaile gazteei laguntzeko deialdia 2026-2027

Convocatoria de apoyo a jóvenes informadores/as en centros educativos alaveses de Enseñanzas Medias 2026-2027

III ERANSKINA: SARE SOZIALETAN IRUDIAK ERABILTZEKO ETA BIDEOAK ARGITARATZEKO BAIMENA
ANEXO III: AUTORIZACIÓN PARA USO DE IMÁGENES Y PUBLICACIÓN DE VIDEOS EN RRSS

Parte-hartzaileek hilean bi bideo labur grabatuko dituzte programari lotuta (azaroa eta maiatza bitartean), eta horietan beren ahotsa edo irudia ager daitezke.
Konstituzioaren 18. artikuluak aitortzen du norberaren irudirako eskubidea, eta Ohorerako, norberaren eta familiaren intimitaterako eta norberaren irudirako eskubideari buruzko maiatzaren 5eko 1/1982 Legeak eta Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoak arautzen dute. Hori dela eta, programa garatu bitartean egiten diren irudiak eta bideoak argitaratzeko baimena eskatzen dugu.

Los participantes grabaran dos videos breves al mes de carácter educativo relacionado con el programa (entre noviembre y mayo) en los que puede aparecer su voz o imagen.
El derecho a la propia imagen está reconocido al artículo 18 de la Constitución y regulado por la Ley 1/1982, de 5 de mayo, sobre el derecho al honor, a la intimidad personal y familiar y a la propia imagen y la Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de protección de datos personales y garantía de los derechos digitales. Debido a ello solicitamos consentimiento para poder publicar las imágenes y vídeos que se realicen durante el desarrollo del programa.

BAIMENA ■ AUTORIZACIÓN

IKASLEAK ADINGABEAK IZANEZ ■ EN CASO DE MENORES DE EDAD

PARTE HARTZAILEA ■ PARTICIPANTE

NANa ■ DNI

Abizenak, izena ■ Apellidos, nombre

Telefonoa ■ Teléfono

Ikastetxea ■ Centro escolar

AITA, AMA EDO TUTOREA ■ PADRE, MADRE O TUTOR/A

NANa ■ DNI

Abizenak, izena ■ Apellidos, nombre

Telefonoa ■ Teléfono

RE 26/149

1/3

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

Arabako Irakaskuntza Ertainetako ikastetxeetan diharduten Informatzaile gazteei laguntzeko deialdia 2026-2027
Convocatoria de apoyo a jóvenes informadores/as en centros educativos alaveses de Enseñanzas Medias 2026-2027

III Eranskina ■ Anexo III

Nire alabak sortutako irudiak eta bideoak erabiltzeko **baimena** ematen diot Gazteriaren Foru Erakundeari. Irudi horiek sare sozialetan edo Gazteriaren Foru Erakundearen webgunean erabili ahalko dira. Gazteriaren Foru Erakundeak egoki erabiliko ditu, programaren filosofiaren bat etorriz. .

☐ **Autorizo** al Instituto Foral de la Juventud para emplear las imágenes y vídeos que ha creado mi hija/o en los que aparezca. Estas imágenes podrán ser subidas en las redes sociales o la web del Instituto Foral de la Juventud. El Instituto Foral de la Juventud hará un uso adecuado de las mismas conforme a la filosofía del programa

.....

Sinadura (aita, ama edo tutorea) ■ Firma (padre, madre o tutor/a)

.....

*(***Lekua eta data** ■ *Lugar y fecha)*

IKASLEAK ADINEZ NAGUSIAK IZANEZ GERO ■ EN CASO DE ALUMNOS/ALUMNAS MAYORES DE EDAD:

PARTE HARTZAILEA ■ PARTICIPANTE

NANa ■ DNI

Abizenak, izena ■ Apellidos, nombre

Telefonoa ■ Teléfono

Ikastetxea ■ Centro escolar

Nik sortutako irudiak eta bideoak (edo ni agertzen **naizenekoak**) erabiltzeko baimena ematen diot Gazteriaren Foru Erakundeari. Irudi horiek sare sozialetan edo Gazteriaren Foru Erakundearen webgunean erabili ahalko dira. Gazteriaren Foru Erakundeak egoki erabiliko ditu, programaren filosofiaren bat etorriz. (zuzenduta).

☐ **Autorizo** al Instituto Foral de la Juventud para emplear las imágenes y vídeos que he creado o en los que aparezca. Estas imágenes podrán ser subidas en las redes sociales o la web del Instituto Foral de la Juventud. El Instituto Foral de la Juventud hará un uso adecuado de las mismas conforme a la filosofía del programa.

.....

Sinadura ■ Firma

.....

*(***Lekua eta data** ■ *Lugar y fecha)*

2/3

Arabako Irakaskuntza Ertainetako ikastetxeetan diharduten Informatzaile gazteei laguntzeko deialdia 2026-2027
Convocatoria de apoyo a jóvenes informadores/as en centros educativos alaveses de Enseñanzas Medias 2026-2027

III Eranskina ■ Anexo III

DATUAK BABESTEARI BURUZKO INFORMAZIOA

Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorrak eta Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoak xedatutakoaren arabera, zure datu pertsonalei ematen dizkiegun tratamenduei buruzko gai hauen berri ematen dizugu, eskatu duzun laguntza edo dirulaguntza kudeatzeko eta izapidetzeko xedez, esleituta ditugun eskumenen esparruan.

Jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak ez zaizkiela hirugarrenei jakinaraziko, eskatu duzun laguntza edo dirulaguntza kudeatzeko eta izapidetzeko edo legezko betebeharrak betetzeko beharrezkoa ez bada, behintzat.

Era berean, jakinarazten dizugu alderdi batzuk kudeatzeko hirugarrenen zerbitzuak erabiltzen ditugula, eta horiek tratamenduaren arduradun jarduten dutela; datuak tratatzeko kontratua sinatu dugu haiekin, DBEOren 28.3 artikuluak xedatutakoaren arabera.

Zure datu pertsonalak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko, tratamendua mugatzeko, aurka egiteko edo datuen eramangarritasuna bideratzeko idatziz eska dezakezu eskaera Gazteriaren Foru Erakundera bidalita (Joaquin Jose Landazuri kalea 3, behea, 01008 Gasteiz, Araba) edo mezu elektronikoa dpo.ifj@araba.eushelbidera bidalita. Zure nortasuna egiaztatzeko beharrezkoa izanez gero, zure NANaren kopia bat eskatuko dizugu.

Informazio gehiago:
https://gazteria.araba.eus/es/proteccion-de-datos
DBEOren onarpena

INFORMACIÓN SOBRE PROTECCIÓN DE DATOS

De acuerdo con lo dispuesto por el Reglamento General de Protección de Datos y por la Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de protección de datos personales y garantía de los derechos digitales, le informamos de las siguientes cuestiones relativas a los tratamientos que hacemos de sus datos personales para la finalidad de la gestión y tramitación de la ayuda o subvención que solicita en el ámbito de las competencias que tenemos atribuidas.

Le informamos de que sus datos personales no se comunicarán a terceros salvo que fuera necesario para la gestión y tramitación de la ayuda o subvención que solicita o bien para el cumplimiento de obligaciones legales.

Del mismo modo, le informamos de que para algunas cuestiones utilizamos servicios de terceros, que actúan como encargados del tratamiento, con quienes hemos firmado el correspondiente contrato de tratamiento de datos de acuerdo con lo dispuesto por el artículo 28.3 del RGPD.

Puede solicitar el acceso a sus datos personales, la rectificación, supresión, la limitación del tratamiento, oposición o la portabilidad de los mismos enviando una solicitud por escrito dirigida a Instituto Foral de la Juventud en calle Joaquín José Landázuri, nº 3 bajo, C.P. 01008 de Vitoria (Álava), o bien enviando un correo electrónico a dpo.ifj@araba.eus. Es posible que le solicitemos una copia de su DNI en caso de que fuera necesario para acreditar su identidad.

Para más información:
https://gazteria.araba.eus/es/proteccion-de-datos
Aceptación RGPD

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

Firmante: CN=ARABAKO FORU ALDUNDIA / DIPUTACION FORAL DE ALAVA, SERIALNUMBER=P0100000I, OU=SELLO ELECTRONICO, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-P0100000I, O=ARABAKO FORU ALDUNDIA / DIPUTACION FORAL DE ALAVA, C=ES
Emisor del certificado: CN=EAEko HAetako langileen CA - CA personal de AAPP vascas (2), OU=AZZ Ziurtagiri publikoa - Certificado publico SCA, O=IZENPE S.A., C=ES
Número de serie: 267116
Fecha de firma: 2026.09.16 05:51:25 Z